



Estatu Islamikoko kideek Steven Sotloff
kazetari israeldar-estatubatuarraren burua moztean



Wassin Nasr France 24 kateko ekialde hurbileko adituak
esan zuen «James Foley eta Steven Sotloff hil dituzte
bereziki amerikarrak zirelako, ez kazetariak zirelako».



1924an liburu bat argitaratu zuen Ernst Friedrich-ek:

Krieg dem Kriege

Guerre à la Guerre!

War against War!

Oorlog aan den Oorlog!

Lau hizkuntzatan, argazkiekin. Argazki oina hau zen:

»Gerran loratzen dira gizonaren bertute nobleenak«

(Moltke Kondea)

Marokoarrek espainiarren aurka euren independentzia defendatu zuten gerran,
soldadu espainiarrek presoen buruak moztu eta iltzatu zituzten.



Soldadu espainiarrak irribarretsu

1922an Arrifeko gerran.

Marokoarrek begiak itxita

gorpurik gabe.



Jewgeni Domatowski poetak

Berlin liberatu zuen Armada gorriarekin.

Jewgeni Chaldej argazkilariak 1945eko maiatzaren 2an

trofeoarekin atera zion argazkia.



Monolith estudioak «La Terre du milieu: l'ombre du Mordor»
bideojokoa egin du Tolkienen obran oinarrituta.

Pariseko metroan iragarki bat jarri dute. Pertsonaia batek
beste baten buru moztua eusten du eta aipu bat dago:
«SUPERBOTERE BATEN ZIRRARA BAT, IA ORGASMIKOA»



James Foleyren buru moztearen harira
Dieudonné M'Bala M'Bala umoristak
argazki hau argitaratu zuen esanaz
Frantziako soldaduak zirela Kamerunen.
Adituek azaldu zioten M'Bala M'Bala jaunari ezetz,
argazkiko afera ez zela kolonizazioko argazki bat zen,
aferra zela ez zirela Frantziakoak soldaduak, Portugalgoak zirela,
eta ez zirela Kamerunekoak erresistenteak, Mozambikekoak zirela.



Pére Lachaise hilerrian brontzezko eskultura burugabetu bat.
2014ko uda amaiera.



H&M dendako manikia bururik gabe.
2014ko uda amaiera.
H&Mko Bangladeshko langileek
2013an hilean 70 dolarreko soldata zuten.



Martín Olmos Bilbon jaio zen 1966an.
2014ko irailean argitaratu du *Escrito en negro*.
Liburuko lehenengo aipua Thomas de Quinceyrena da:
«Norbaitek bere buruari baimena ematen badi asasinatzeko,



2014-11-14

[Buru moztuak](#)

laster ez dio lapurretari garrantzirik emango,
lapurretatik edatera joko du
eta Jaunaren egunari jaramonik ez egitera
eta azkenean hezkuntza onari huts egingo dio
eta azkenik hurrengo egunerako utziko ditu gauzak».
Liburuko azaleko bibotedunak
bere buruari moztu dio burua.



Martín Olmos Bilbon jaio zen
eta *El Correo* egunkariarentzat
bost urte darama krimenak kontatzen.
El Correo egunkariak
aspaldi kontatzen ditu krimenak.
Erakutsi ditu bibotedunak, buruak.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)